

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2012ko IRAILAREN 13an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko irailaren 13an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.40 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2012ko uztailaren 26an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo poligono 1, 201 partzelan txabola bat egiteko obra baimena eskaera, I.E.**
- 4. Gure Ametsa 12-B etxe ondoan txabola bat egiteko obra baimena eskaera, E.A.O.**
- 5. Olatza baserri inguruan dagoen pinudia ateratzeko, herri bidearen erabilpen baimena, I.S.**
- 6. Sorozelai 42 esk. Etxeko piszinako ur kontadoreari baja emateko baimena eskaera, I.O.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2012 urteko uztailaren 26ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO POLIGONO 1,201 PARTZELAN TXABOLA BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.E.

Ikusirik I.E. jaunak eginik eskaera, non Larraulgo Poligono 1,201 partzelan txabola bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2012ko irailaren 11an eginiko txostenean dioena:


“LARRAULGO 201 LURSAILEAN TXABOLA BAT EGITEKO ASMOARI TXOSTEN TEKNIKOA

*I.E.A. jaunak, Larraulgo 1 poligonoko 201 lursailean txabola bat egiteko asmoa azaltzen du. Honetarako lursaila eta bordaren kokapena, bordako oina eta altxaerak azaltzen dituen 3 plano eta aurrekontu bat aurkezten ditu obra baimena eskuratzeko. Dokumentazioa aztertutik eta eskaerari erantzuten, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Eskarian, 20m²ko azalera eraikigarria izango duen txabola bat egin nahi dela esaten da. Txabola honek, ekialdean azalera berdineko portxe ireki bat izango luke. Paretak kanpotik raseatutako blokez egindakoak izango dira, teilatuaren egitura egurrezkoa litzateke eta honen bukaera teilazkoa.

Txabola egiteko aurkeztu den aurrekontua 14.948,70€koa da eta takimetrikoaren arabera, lursailak 5.400m²ko azalera bat du.

201 lursaila Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan dago, D.20 produkzio zonaldean.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Arau Subsidiarioen lur hiritargarriezinaren 72º artikulua esaten duen bezala, nekazal erabilera ez profesionalizatuentzat gehienez egin daitekeen txabolek 20m²-ko azalera eraikigarria izango dute, beti ere txabola honi loturiko lursailak 2.500m² baino gehiago baditu.

Artículo 72.-Usos agrarios no profesionalizados

Reciben la denominación de usos agrarios no profesionalizados aquellas explotaciones agrarias que no reúnen los requisitos de viabilidad y autonomía productivas exigidos para ser consideradas como usos de explotación agraria común. Deberán cumplir las siguientes exigencias:

a) Su implantación no exigirá la emisión del informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Parcela mínima. La parcela o huerta labrada y trabajada de forma permanente que contenga una txabola tendrá una superficie mínima de 2.500m².

c) Condiciones de edificación: se autoriza la construcción de una txabola por parcela destinada a la guarda de aperos.

Asimismo se permite la construcción de cubriciones para protección del ganado, siempre que sean abiertas por sus laterales.

d) Superficie máxima construida: 20m² para las txabolas destinadas a la guarda de aperos.

e) Condiciones de la licencia. La licencia municipal se concederá siempre en precario. En caso de que un mismo titular trabajara dos o más parcelas situadas en el mismo entorno, solamente se autorizará la construcción de una txabola o caseta.

Kanpo itxurari buruzko 48º artikulua berriz honela dio:

Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones


-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

-Las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad”.

Honen arabera, dokumentazioan azaltzen den lursailaren azalera, nekazaritzako tresnak gordetzeko eraikinaren materialak eta txabolaren kanpo itxura, egokiak dira.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

69º artikulua araber, eraikina ondoko partzelatik 8m-tara egon beharko da gutxienez, beste landa lurreko eraikinak ez direnen arteko gutxieneko distantzia 50m-koa izanik.

Beraz, aurreko baldintzak betetzen badira, bidezkoa iruditzen zait obra baimena ematea.

Ohartu beharreako da, 72º artikulua obra baimena prekarioan emango dela esaten duela.

Gaia aztertutik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.E.A. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da Larraulgo poligono 1eko, 201 lursailean txabola bat egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- I.E.A. jaunari jakinarazi, Larraulgo poligono 1etako 201 lursailean txabola bat egiteko ematen zaion obra baimena prekarioan izango dela.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen araber dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

LAUGARREN PUNTUA


GURE AMETSA 12-B ETXE ONDOAN TXABOLA BAT EGITEKO OBRA

Ikusirik E.A. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Gure Ametsa-B etxearen Lorategian txabola bat jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2012ko irailaren 12an egindako txostenean dioena:

“LARRAULGO GURE AMETSA-B ETXEAREN LORATEGIAN TXABOLA BAT JARTZEKO ESKAERARI EGINDAKO TXOSTENAREN ZUZENKETA

E.A.O. jaunak, 2012-ko uztailaren 20-ean, Larraulgo Gure Ametsa-b etxearen atzealdean duen lursail pribatuan txabola bat jartzeko baimena eskatu zuen, egin beharreko lanen batazbesteko aurrekontua eta txabolaren ezaugarriak azaltzen zituen idatzi bat aurkezten zuelarik. Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, ondoren azaltzen duen txostena igorri nuen:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aurkeztutako eskarian, 4m x6m-ko azalera eta 1,80m-ko altuera libre duen blokeko txabola bat jartzeko asmoa azaltzen da, etxearen atzealdeko lorategian dagoen lur pribatuari kokatuko litzatekeelarik, txabola, oilaskoak eta baratzeko tresnak gorde ahal izateko erabiliko litzateke.

Aurkeztutako idatzian eta lursaila nibelatzeke, harriz estalitako 1m-ko altuera izango duen itxitura bat egiteko baimena eskatzen da ere.

Gure Ametsa-B etxea, Larraulgo lur-hiritargarrin kokatua dago, bereziki, A.I.U.1 Kaskoaren eremuan. Larraulgo araudiaren arabera kaskoan dauden etxebizitzak finkatuak gelditzen dira eraikuntza aukera berririk gabe.

Larraulgo 19º artikulua eraikuntza aprobetxamenduak arautzen ditu. Honen arabera, 1,80m-tako altuera libre baino gutxiago duten gune estaliak eta itxiek ez dute konputatzen.

Artikulu honen arabera, txabolak 1,80m-tako altuera libre bat baino gutxiago izanik, ez luke konputatuko.

Txabolaren materialei dagokionez, 37 artikulua, blokea raseatua eta estalkia teilazkoa izan beharko lukeela esaten du.

Ondoko lursaila eta eraikin berriaren arteko distantzia, 2m-koa izango da gutxienez, kode Zibilaren neurriak jarraituz.

Lur hiritargarrin dauden lursailen itxiturei buruz, Larraulgo araudiak honela dio:

Artículo 38.-Cierres de parcela

Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50mts.


Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20mts.

Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.

Eraikinean egingo diren erabilerak ere, onargarriak dira lur-hiritargarrin (lanabesen gordailua eta etxe oilategia- beti ere ingurumen araudia betetzen bada)

Beraz, eta aurreko baldintzak betetzen badira, onargarri izango litzateke udal baimena ematea iruditzen zait.

**Oharra. Kasu ez-tipiko baten aurrean gaudela kontutan izanik, eta etorkizunean datozen eskariak nolabait arautu ahal izateko, kasu honetan, Larraulgo 72º artikulua erabiltzea komeniko litzatekeela iruditzen zait.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Bertan eraikinen gehienezko azalera 20m²-tan markatzen da, obra baimena prekarioan ematen delarik.

Dokumentuaren bukaeran azaltzen zen apreziazioaz oharturik, Larraulgo Udalbatzak txostena mahai gainean uztea erabaki zuen gaia legalki ondo aztertu eta lotu arte.

Larraulgo Arau Subsidiarioen 19º artikuluko eraikuntza aprobetxamenduari egindako interpretazioak (1,80m-tik beherako eraikinak ez dutela konputatzen, alegia) arau gabeko bide batean sartzen gintuen. Mugarik gabeko okupazio honek ekar litzakeen ondorioak nolabait arautzeko lur ez hiritargarriko txabolei buruzko 72º artikulua erabili zen txostenean. Hau da, gehienezko azalera 20m²-ra mugatzen zen obra baimena prekarioan eman behar zelarik.

Mugaketa horren fundamentua legalki ez zen oso sendoa, lur ez-hiritargarriko araudia ez bait da lur hiritargarrian aplikatzeko eta azaleraren kontutan kontraesan bat azaltzen zen ere.

Beraz, gaur egun indarrean dauden Larraulgo araudian honelako kasu ez-tipikoak mugatzeko inolako ordenantza ez dagoela kontuan harturik, (eta prestatzen ari den Plan Orokorrak hauek arautu arte), Larraulgo arau subsidiarioko memorian azaltzen den A.I.U.1 Kaskoari dagokion jarduketa proposamenari buruzko testua zehaz- mehatz aplikatu beharko litzateke:


A.I.U.1 Casco actual

Dentro de esta área se recoge el conjunto de edificaciones ya existentes en el actual casco de Larraul, incluyendo las ya desarrolladas y en fase de ejecución a raíz de las vigentes Normas Subsidiarias, así como las U.A.U.4, U.A.U. 12 Y U.A.U.13 no ejecutadas, manteniéndose en estas últimas las previsiones ya aprobadas (7 viviendas en total).

Las edificaciones actuales se consolidan sin plantear posibilidades edificatorias de nueva planta, siendo las mencionadas U.A.U.4, U.A.U. 12 Y U.A.U.13 las únicas actuaciones posibles. Respecto a su denominación, varían, pasando a llamarse U.E.1.1. y U.E.1.2. respectivamente (unificando en una sola unidad de gestión las dos unidades correspondientes a Elizalde).

Kaskoan dauden etxebizitzak finkatuak gelditzen dira oin berriko eraikuntza aukerarik gabe. Eta ondorioz, txabola berria eraikitzea ez litzateke baimendagarri izango.”

Ondoren, Batzarkide artean eztabaida bat egoten da E.A. jauna bertan dagoelarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beraz batzarkide artean adostasun falta dagoenez E.A. jaunak eskaturiko Gure Ametsa B etxearen lorategian txabola bat jartzeko baimena eskaerari buruz, bozkatu egiten da. Ondorengo delarik emaitza:

Aldeko botoak: Irazu, Tejeria eta Usandizaga zinegotziak

Kontrako botoak: Mujika, Jauregi, Barandiaran eta Aranzabal zinegotziak

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatzak gehiengo soilaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: E.A. jaunak eginiko eskaera ukatzea, hau da Larraulgo Gure Ametsa-B etxearen lorategian txabola bat jartzeko baimena eskaera ez onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea.

Aldi berean, harriz estalitako 1m-ko altuera izango duen itxitura bat egiteko obra baimenari buruz, Udalbatzak, aho batez erabakitzen du baimena ematea, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu eta Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzen da.

BOSTGARREN PUNTUA

OLATZA BASERRI INGURUAN DAGOEN PINUDIA ATERATZEKO, HERRI BIDEAREN ERABILPEN BAIMENA ESKAERA, I.S.

Ikusirik I.S. jaunak eginiko eskaera, non Asteasuko Iturtasarobe baserritik Larraulgo Olatza baserri ingurura doan herri bidea erabiltzeko baimena eskaera egiten duen, Olatza baserri inguruan dagoen pinudi bat atera behar duelako.


Ikusirik 2010eko uztailaren 29an egindako Udalbatzak harturiko erabakia, non Udal jabetzako landa bide eta pisten erabilera berezia erregulatzen duen araudia onartu zen, honen arabera, pinuak ateratzeko baimena ematearekin batera, baimena eskatzaileei, herribideetan sor ditzazketen kalteez erantzutearren berme bat jartzea eskatzea onestu zela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.S. jaunari Asteasuko Iturtasarobe baserritik Larraulgo Olatza baserriraino doan herri bidea erabiltzeko baimena ematea, betiere lan hauek egiten hasi aurretik, Larraulgo Udaletxean 2.198,35 eurotako fidantza jarri beharko duelarik, herri bidean gerta daitezken kalteei aurre egiteko.

BIGARRENA: I.S. jaunari erabaki honen berri ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SEIGARREN PUNTUA

SOROZELAI 42 esk. ETXEKO PISZINAKO UR KONTADOREARI BAJA EMATEKO BAIMENA ESKAERA, I.O.

Ikusirik I.O. jaunak eginiko eskaera, non Sorozelai 42 esk. Etxeko igerilekuko ur kontadoreari baja emateko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.O. jaunak eginiko eskaera onartzea, hau da Sorozelai 42 esk. Etxeko igerilekuko ur kontadoreari baja ematea.


BIGARRENA: I.O. jaunari jakinarazi, kontadorea kendutakoan, Udaletxe honi jakitera eman beharko diola.

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ULAHI	803,70
BABESA SUZAI, S.A.	63,92
HERMEX	225,19
KOLDO JAUREGI SARASOLA	12.366,40
KOPIDIN	204,32
CALPARSORO INDUSTRIAL, S.L.	4,40
JOXAN ALTUNA	264,71
FERRETERIA BARBE	7,79
BERRI LANTEGIA	143,29
DEKO ARBERAS, S.L.	32,10
SASMAK	30,68
KIROLZER	145,60
KIROLZER	145,80
EBA ERKIZIA BRION	558,14
IBERDROLA	710,14
GASNATURAL FENOSA	125,30
GASNATURAL FENOSA	77,44
GASNATURAL FENOSA	41,04
GASNATURAL FENOSA	213,33
GASNATURAL FENOSA	235,36
GASNATURAL FENOSA	178,46
GASNATURAL FENOSA	284,29



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GASNATURAL FENOSA	105,34
GASNATURAL FENOSA	33,26
REPSOL	4,04
REPSOL	4,04
EUSKALTEL	224,99
EUSKALTEL	123,02
MOVISTAR	87,59
MOVISTAR	17,98
MOVISTAR	94,32
MOVISTAR	20,47

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **17.576,45** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez:

8.1. TOLOSALDEA GARATZENI 2012 URTEKO EKARPENAREN BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek eginiko eskaera, non Larraulgo Udalari eskaera egiten dion, 2012. Urteari dagokion ekarpena burutu dezan, bere zenbatekoa 4.095 euro delarik.


Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Ikusirik lehen ekarpena martxoaren 30ean burutu zela, bigarren ekarpena burutzeko eskaera luzatzen duelarik Tolosaldea Garatzenek.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzeni, 2012 urteko bigarren ekarpena burutzea, hau da, 2.047,50 eurotako diru kopurua.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: 2.047,50 eurotako gastua onestea.

8.2. DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 1. ZK. KO EPAITEGITIK IGORRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIERREKURTSOAREN BERRI EMATEA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei berri ematen die, Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoak, Estatuko Abokatuaren bitartez, Donostiako Administrazioarekiko auzien 1.zk.-ko epaitegiari eskatu diola, Larraulgo Udalari jarritako auzi errekurtsoa bertan behera uzteko, Larraulgo Udalak Toki-Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 1985/7 Legearen 53.1 art.-ak dioena betetzen hasi delako.

Batzarkideak gai aztertutik, aho batez, erabakitzen dute, aipaturiko auzi-errekurtsoa bertan-behera uzteko proposamenarekin ados daudela.

8.3.T.P. JAUNAK, LARRAULGO HERRI OSTATUAREN USTIAKUNTZA ERAMAN ZUENAK LARRAULGO UDALEAN UTZITAKO ZORREN BERRI EMATEA

Ikusirik T.P. jaunak, Larraulgo Herri Ostatuaren ustiakuntza eraman zuenak, hainbat zor utzi dituela, bai Larraulgo Udalean baita Iberdrola eta Repsolen, guztira 4.040,24 euro zorra duelarik.

Ikusirik, Iberdrola eta Repsoleko zorrak Larraulgo Udalak ordaindu beharra izan dituela, batetik titularitatea Udaletxearen delako eta bestetik, momentu honetan herri ostatua beste ustiatzaile batzuekin martxan dagoenez, argi indarra edo gasa moztea ezinezkoa egiten delarik.

Ikusirik, T.P. jaunak 2007urtean 3.000 eurotako fidantza bat jarri zuela Herri Ostatuaren ustiakuntzagatik sortu zitezkeen arazoaz bermatzeko.


Ikusirik T.P. jaunak bere baimena eman diola Larraulgo Udalari dituen zorrak kitatzeko bere garaian jarritako bermea erabiltzeko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: T.P. jaunak, 2007 urtean jarritako bermea erabiltzea gaur egun dituen zorrak ordaintzeko, iristen diren diru kopuru bitartean.

BIGARRENA: T.P. jaunari jakinaraztea, hilabeteko epea duela Udaletxe honetan 1.040



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

eurotako diru-kopurua ordaintzeko. Jakinaraziz aipaturiko epean ordainketarik burutzen ez bada premiamentu bidea irekiko dela.

HIRUGARRAN: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

8.4. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEO ETA TURISMO DEPARTAMENTUKO IDATZIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamendutik igorritako idatzia, non ondorengo dioen:

“Alkate agurgarria:

Honekin batera bidaltzen dizugun mapan Larraulgo inguruan baimenduko ditugun ehiza-postuen kokapena dago sartuta. Ikus dezakezunez, guztira 83 postu daude, gehienak Larraulen baina baita ere Asteasun eta Alkizan.

Ehiza lerroari Usarrabi izena jarriko diogu. Postuen kokapena eta kopurua aldatzea egongo da, gure proposamenari ekarpenak egiten baldin badira. Horretarako, idatzi honen bitartez, eskatu nahi dizut informazio hori zure herriko ehiztariei helaraztea, postu horiek ohiko ehiza lerroa izendatu baino lehen.”

Aldez aurretik, zure laguntza eskertuz, jaso ezazu gure agurrik beroena.

Mendi eta Natura inguruneko zuzendari nagusia.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek , aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak igorritako idatziaren berri herritarrei ematea, bando eta Larraulgo web orriaren bitartez.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.00 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA